

## UDALAREN OSOKO BILKURA

### 2018ko otsailaren 19ko ezohiko bilkura

#### BERTARATUAK

##### ALKATE UDALBURUA

M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

##### ZINEGOTZIAK

###### Euzko Abertzaleak

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA  
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO  
FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA  
ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA  
XABIER LOSANTOS OMAR  
IDOIA BLASCO CUEVA  
IKER AGIRRE BARTZENA

###### Esnatu Leioa

RUBEN BELANDIA FRADEJAS  
JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ  
M<sup>a</sup> DOLORES LOZANO MUÑOZ

###### EH-Bildu Leioa:

ARITZ TELLITU ZABALA  
JOKIN UGARTE EGURROLA

###### Euskal Sozialistak:

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES  
ENARA DIEZ OYARZUN  
ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

###### Leioako Alderdi Popularra:

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ  
JAZAEL MARTÍNEZ ESTEBAN

##### EZ DA BERTARATU:

###### Euzko Abertzaleak

DIONI ANDRES BLANCO

###### Esnatu Leioa

DESIREÉ ORTIZ DE URBINA MARÍN

###### EH-Bildu Leioa:

NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ

##### EUSKARA ITZULTZAILEA

GARAZI BIAIN

##### KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIA GUTIERREZ

##### IDAZKARIA

CHIARA CAMARÓN PACHECO

Leioako Udaletxean, bi mila eta hemetزتortziko otsailaren hemeretztiko arratsaldeko zazpiak eta hiru minutu direnean Elizate honetako Udalbatza ohiko bilkura egiteko bildu da, **Alkate Udalburu M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ** andrea izan da bileraren burua eta IDAZKARI NAGUSI CHIARA CAMARON PACHECO andreak lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek hartu dute parte, eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen gehiengoa dira. Alkate Udalburu andreak aurretik egin die ezohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.2.b) artikuluan xedatutakoa eta aipatutako Legearen 21.1.c) artikuluan ezarritakoa aintzat harturik, udalbatzak 2013ko ekainaren 27ko osoko bilkuran onartutako eta urte horretako irailaren 23an 182 zk. BAOan argitaratutako Leioako Udal Araudi Organikoaren 25 artikuluekin ados.

Adierazitako orduan, lehenengo deialdian, Presidentetzak bilkura irekitzat eman du eta jarraian, ezohiko bilkura honetako gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin diote.

## I.- ERABAKITZEKOAK

### 1.- DR-5/16 ERREFERENTZIAKO ARBITRAJE-PROZEDURAN EMANDAKO ARBITRAJE-LAUDOAREN AURKAKO AKZIOAK HASTEKO PROPOSAMENA, OSOKO BILKURAK EZOHIKO SAIOAN AZTERTZEKO:

DR-5/16 erreferentziako arbitraje-laudoaren aurkako ekintza judizialak hasteko alkatezaren proposamena irakurri ondoren:

ESP.: 2018/AI/03/40

Kontuan hartzen da Barne Araubideko Informazio Batzordearen 7 zk. irizpena, 2018ko irailaren 13an egindako saioan emandakoa.

Kontuan hartzen da Alkatetzaren Proposamena, arbitraje-lauoaren aurkako ekintza judizialei hasiera ematekoa.

### **BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Bozkatzeko ezarri ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko hamasei botoren gehiengoz, saioan bertaratutako Euzko Abertzaleak udal taldeko zinegotzienak, saioan bertaratutako Euzko Abertzaleak udal taldeko zinegotzienak, saioan bertaratutako EH-Bildu Leioa udal taldeko bi zinegotzienak eta Euskal Sozialistak udal taldeko hiru zinegotzienak, eta bi abstentzio, Leioako Alderdi Popularreko bi zinegotzienak, **honako hau onartu zuen**:

Kontuan hartuta Aros Estudio de Arquitectura, SAK eta Excavaciones Vda. De Sainz, SAK osatutako Aldi Baterako Enpresa Elkarteak egindako arbitraje eskaerari buruzko espedientea eta Leioa Kirolak, SAUren Administrazio Kontseiluak Pinosolo Kiroldegiko (Pinosolo ABEE) proiektua idazteko, obra zuzendaritzako, segurtasun eta osasun alorreko koordinazioko eta obrak egikaritzeko kontratuaren behin-behineko eta behin betiko esleipenak direla eta hartutako erabakien gaineko ofizioz berrikustearen eta deuseztasun-deklarazioaren espedientea,

Kontuan hartuta 2017ko abenduaren 21ean Leioako Udalari jakinarazi zitzaizkion Pinosolo ABEEk aurkeztu zituen DR-5/16 erreferentziako arbitraje-prozedurako arbitraje-lauoaren proposamenaren aurkako alegazioak ez onartzeko erabakia, Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberako Arbitraje Gortean jarraitu zen prozeduran,

Kontuan hartuta gaian adituak direnek emandako txostenak, hain zuzen, 2017ko maiatzaren 25an José Antonio Moreno Molina Administrazio Zuzenbideko Katedradunarena, 2018ko urtarrilaren 18ko Francisco Javier Sáez Gabicagogeascoa Zuzenbide Zibileko abokatuarena eta 2018ko otsailaren 1eko Tomás Ramón Fernández Rodríguez irakasle jaunarena, Administrazio Zuzenbideko Katedraduna, gaur egun Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean diharduena eta abokatu dena,

2018ko otsailaren 8an udal idazkariak txostena eman zuen, Toki Araubideari buruz indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 54 zk. artikuluan zehaztutakoaren arabera, bai eta Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 221 artikuluen arabera ere. Txostenean honako hau ondorioztatzen da: “Aros Estudio de Arquitectura, SAK eta Excavaciones Vda. de Sainz, SAK eraturako Aldi Baterako Enpresa Elkarteak (Pinosolo ABEE) Bilboko Arbitraje Gortean interesatutako DR-5/16 erreferentziako arbitraje-prozeduran emandako arbitraje-lauoaren aurkako ekintzen bidezko erabakia dela eta, aipatutako aurrekari faktiko eta juridikoak ikusita, txosten hau onartzen duenak bidezko erabakia jotzen du deuseztapenaren akzioa, 60/2003 Arbitraje Legearen 41 zk. artikuluen a), e) eta f) ataletan jasotako arrazoiengatik...”,

ESP.: 2018/AI/03/40

Osoko bilkuraren eskumenekoak diren gaietan jarduerak burutzeko ahalmena erabiliz, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 j) artikuluekin bat,

**Lehenik.**- Jurisdikzio zibilean aurkaratzea 2018ko azaroaren 21ko arbitraje-laudoa, Bilboko Merkataritza Ganberako Arbitraje Gortearen DR-5/2016 Arbitraje Prozeduran emandakoa, Pinosolo ABEEK egindako laudoaren zuzenketa, argibide edo gehigarri eskaeraren gaineko ebazpenaren jakinarazpenaren hurrengo bi hilabeteen barruan, hau da, 2018ko otsailaren 21a baino lehen. Erabaki honen arrazoibide honako hauen txostenen edukia dira: udal idazkariarena (2017ko maiatzaren 31koa eta 2018ko otsailaren 9koa), José Antonio Moreno Molina Administrazio Zuzenbideko Katedradunarena (2017ko maiatzaren 25koa), Francisco Javier Sáez Gabicagogeascoa Zuzenbide Zibileko abokatuarena (2018ko urtarrilaren 18koa) eta Tomás Ramón Fernández Rodríguez, Administrazio Zuzenbideko Katedraduna eta abokatu (2018ko otsailaren 1ekoa).

**Bigarrenik.**- Xabier Nuñez Irueta jauna, auzitegien prokuradorea, udalaren ordezkari izendatzea (horretarako, dagokion ahalordea emango zaio) eta abokatuaren defentsa Ricardo Sanz Cebrián jaunak egingo duela erabakitzea.

**Hirugarrenik.**- Udalaren ordezkari gisa dituen eskumenak eragotzi gabe, alkateari erabaki hau betearazteko behar dituen ahalmenak ematea.

Eta arratsaldeko zortziak eta lau minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak saioa bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako terminoetan onetsi dena eta idazkari nagusia naizen honek hori guztia ziurtatu dut.

O.E.  
ALKATEA,

ODAZKARI NAGUSIA,